



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
2016/02/29

## **Aldundiak "plan indartsu" pilotua jarriko dau martxan La Encartada Museorako**

Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako diputatu andreak gaur eguerdian azaldu dau Batzar Nagusietan bere sailak izaera “pilotua” izango dauen “plan indartsua” jarriko dauela martxan La Encartada txapel Museoeko bisitarien ganeko datuak hobetzeko. “30.000 euroko” aurrekontua izango dauen ekimenak arrakasta lortzen badau, “urtean 12.000 bisitari baino gitxiago” dituen Bizkaikoa sareko beste museoetara edo kultur guneetara be zabalduko da. Hori gertatzen da Balmasedako museoagaz, igaz “10.315 bisitari” izan ebazan eta. Bere sailaren idea kudeaketako esperientzia hori, etorkizunean, “Ondare Aretora, Arrolako, Ereñozarreko eta Foruko arkeologia aztarnetara, Muñatoneseko gaztelura edo Txakoligunera” zabaltzea da.

Bizkaikoak prestau dituan eta “hiru urteko” jomugea izango daben “ekintzen” artean, La Encartada Museoan “kontzertuak, ibilpideak, ez ohiko erakusketea, ehun azokea, edo ikasleen eta kultur alkarteen bisiten antolakuntzea” jasoko dira, eta baita unibersidadeko eta lanbide heziketako ikasleentzako “programa bereziak” be. Halaber, Bizkaiko museoak koordinetan dituan erakundearen asmoa, Enkarterriko museoak “makinen eta tailer mekanikoaren erakustaldiak” egitea da. Proposamenen artean taberna-jatetxe bat zabaltzea be jasoten da.

Lorea Bilbaok azaldu dauenez, 2011n sortu zan Bizkaikoa sarean dagozan zentroek jasoten daben bisitari kopuruak gora egin dau orokorrean, baina “danek ez dabela portaera bera erakutsi” be autortu dau. Igaz, Foru museo horreek eta Aldundiaren partaidetzea edo diru-laguntzak dituen zentroek “204.149 bisitari” jaso ebezan. Bisita gitxiago jasoten daben zentroetan “zeozer gehiago egin daitekeala uste dogu”, zentro horreen garrantziak gora egin daian.

Bilbaok azaldu dauenez, La Encartada txapel lantegi zaharra aukeratu da proba “pilotua” egiteko “goi mailako” instalazinoak ditualako, “jatorrizko makineria guztia” kontserbetan dauelako, taberna-jatetxea zabaltzeko aukerea eskintzen dauelako eta bere inguruan “aisiarako leku handia” dagoalako, “lorategiakaz eta txinboakaz”. Hori dala eta, lekua erakargarriagoa da “goiz edo arratsalde osoko” egotaldi luzeagoetarako.

### **KOMUNIKABIDEEN ETA GIZARTE ZIBILAREN KONPLIZIDADEA**

Batzordearen hasieran plan indartsua aurrera eroateko aurrekontuak “txikia emoten dauela” esan ostean, Arturo Aldecoa popularrak, agerraldi eskariaren arduradunak, eskaerea egin dau, Bizkaia Goazen 2030 proiektu estrategikoaren barruan dagoan proiektu horretan komunikabideen “konplizidadea” bilatu daiten, kultur gune horreek



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

bizkaitarron artean “modan” jarteko, “Bizkaiarentzat oso garrantzitsuak diralako, gure iraganaren ondare diralako”. Podemos Bizkaiako Josean Elgezabalek, bere aldetik, eskaerea egin dau zentro horreek ezagutu arazoteko zereginen “gizarte zibila” inplikau daiten, hau da, “kultur taldeak, auzokideen alkarteak eta mankomunidadeak”.

EH Bilduko Meritxel Elgezabal “arduratuta dago” Aldundiaren helburua “bisitari gehiago” jasotea dalako. “Helburua diru gehiago jasotea da?”, galdetu dau. Bere taldeak uste dauenez, museoek bete beharko leukien zereginari buruzko “eztabaidea bultzatu beharko litzateke gizartean”. “Gizarteak Bizkaiko museoen ganean dauen ezagutzari buruzko diagnostikoa egin dozue?”. Diputatu andreak erantzun dauenez, aurrerago egingo dan agerraldian Bizkaikoa enpresa publikoaren barruan dagozan kultur zentroen urteko balantzea eroango da Bizkaiko Batzarretara. Enpresa publiko horren lehentasunak “ondarea zaintzea, balioan jartea eta ezagutu arazotea da”, gogoratu dau.

#### SMITHSONIAN FOLKLIFE FESTIVAL

Popularren beste agerraldi bati erantzunez, Washingtonen egingo dan Smithsonian Folklife Festival izenekoan Bizkaiak izango dauen presentziaren ganeko informazioa emon dau Lorea Bilbaok, baina ezin izan dau xehetasun askorik aurreratu, datozan hilebeteetan behin betiko programa osatzen jarraitu behar dalako beharrean. “Prestetan ari gara”, esan dau.

“Kulturen arteko alkarrizketara zuzendutako azoka” horretarako Aldundiaren aurrekontuetan agertzen diran “600.000 euroei” buruz galdetuta, diputatu andreak adierazo dau antolatzaileek euskal kulturari egin deusien gonbidapena “erronkea eta aukerea dala, arriskua baino gehiago” munduaren aurrean “zer garan” erakusteko eta Estatu Batuetako jendea “gu ezagutzera” etorri daiten.

Antolatzaileek aurreikusten dituen ekintzen artean, Lorea Bilbaok uste dau ez dirala faltau behar gure artisauek egindako lanak, herri kirolak, euskal gastronomia, euskerea, musikea, dantzea edo adierazpen moeta garaikide barriak. Diputatuak “bisitariagaz izan beharreko alkarrekintzea, hitzaldiak eta konferentziak” be eskaintza horren barruan sartu ditu. Bizkaitik jaialdira doazan “partaideak” euskal kulturaren eremu horreekaz “erlazionauta egongo dira”, eta antolatzaileek eurek aukeratuko ditue. Dana dala, Aldundiak partaide posible horreen aurre-aukeraketea egingo dau. “Eurak erabagiko dabe, euren interesetan oinarrituta”, esan dau.

Bilbaok esan dauenez, antolatzaileek hainbat bisita egin ditue Euskadira –hurrengo “apirilean” izango da– eta “astean behin” alkartzen dira internet bitartez Aldundiko ordezkariakaz. Diputatu andreak adierazo dauenez, aurreikuspenak kontuan izanda “milioi bat bisitaritik 5 milioira” jasoko dituan jaialdian euskerak presentzia izango dau, “euskaltegi” bat eta “bertsolaritzarako”, “euskal literaturarako”, eta “hizkuntza horretan egiten diran komunikabideetarako” lekuak jarriko diralako.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## IRUDI MODERNOA ETA ESPAÑA MARKEA

PP taldeak eskaria egin deutso Aldundiari, herrialdearen “modernotasunagaz zerikusia daben” alderdietan sakondu daian, estatubatarrek “klixekaz funtzionetan dabelako”. Podemos Bizkaia taldetik eskaerea egin da Euskal Herriko ordezkariak España markatik “urrundu” daiten, “marka horretatik heltzen danak bildurra emoten dauelako”, esan dau Josean Elgezabalek, eta eskaria egin dau, baita be, “kultur taldeakaz” hartuemonak egon daitezkan, diseinu prozesuan parte hartu daian. EH Bilduk, bere aldetik, inbertsino garrantzitsuaren “itzulerari” buruz galdetu dau, eta beste erakunderen batek Bizkaiko Foru Aldundiagaz bat egin ote dauen.

Bilbaok erantzun dauenez, Washingtonen “Basque country” markeagaz egingo dabe behar, eta antolatzaileek “aurre-eretzietan oinarritutako akatsak zuzentzeko” aukerea izan dabela esan dau, Estatu Batuetako ordezkariak gure herrietara, hirietara, zentro teknologikoetara edo enpresa barrizailleetara egin dituen bisitei esker. Bisita horreetan gure osasun publiko zerbitzua ezagutzeko edo euskerea ze lurraldetan egiten dan (Iparralde, Nafarroa eta EAEko lurraldeak) jakiteko aukerea izan dabe.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

29/02/2016

### **La Diputación llevará a cabo un "plan de choque" piloto para el Museo La Encartada**

La diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha informado este mediodía en las Juntas Generales que su departamento va a realizar un "plan de choque" de carácter "piloto", para mejorar los datos de visitantes del Museo de boinas La Encartada. La iniciativa, que cuenta con un presupuesto de "30.000 euros", se extenderá, de tener éxito, a aquellos otros museos o centros culturales de la red Bizkaikoa cuyas cifras de visitas se sitúen "por debajo de los 12.000 visitantes anuales" como es el caso del centro de Balmaseda al que se acercaron "10.315 personas" en 2015. La idea del departamento es "trasladar" esta experiencia de gestión, en el futuro, a la "Sala Ondare, a los restos arqueológicos de Arrola, Ereñozar y Forua, al castillo de Muñatones o al Txakoligune".

Las "acciones" preparadas por Bizkaikoa, que tendrán un horizonte de desarrollo de "tres años", incluyen para el Museo La Encartada la organización de "conciertos, itinerarios, una exposición extraordinaria, una feria textil, o la organización de visitas de escolares y de centros culturales", además de "programas especiales" para alumnado universitario y de formación profesional. Asimismo, la entidad coordinadora de los museos vizcaínos pretende que el centro encartadado desarrolle "actividades en las que se hagan demostraciones de funcionamiento de la maquinaria y del taller mecánico". Entre las propuestas, se incluye también la apertura de un bar-restaurante.

Lorea Bilbao ha explicado que las visitas a los centros incluidos en la red de Bizkaikoa creada en el año 2011, no han parado de crecer en su globalidad, aunque ha reconocido que "no todos tienen el mismo comportamiento". El año pasado, estos museos forales, y centros participados o subvencionados por la Diputación, registraron "204.149 visitantes". "Creemos que se puede hacer algo más" en aquellos centros que reciben un volumen de visitas menor con el objeto de aumentar su notoriedad.

Bilbao ha explicado que se ha elegido la antigua fábrica de boinas La Encartada para la prueba "piloto" porque tiene unas instalaciones de "alto nivel", conserva "toda la maquinaria original", tiene la posibilidad de abrir un bar-restaurante y porque en sus alrededores hay una "amplia zona de esparcimiento con jardines y columpios", que hacen más atractivo el lugar para estancias largas "de mañana o tarde".

## COMPLICIDAD DE MEDIOS DE COMUNICACIÓN Y SOCIEDAD CIVIL

Tras indicar al inicio de la comisión que el presupuesto para desarrollar un plan de choque le "parece poco", el popular Arturo Aldecoa, responsable de la petición de comparecencia, ha pedido que en dicho proyecto incluido en el proyecto estratégico



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Bizkaia Goazen 2030, se busque la “complicidad” de los medios de comunicación para poner estos centros culturales “de moda” entre vizcaínos y vizcaínas, puesto que son “muy importantes para Bizkaia, por ser legado de nuestro pasado”. Por su parte, Josean Elgezabal, de Podemos Bizkaia, ha pedido que se implique en su difusión a la “sociedad civil”, es decir , a “colectivos culturales, asociaciones de vecinos y mancomunidades”.

A Meritzel Elgezabal, apoderada de EH Bildu, le “preocupa” que el objetivo de la Diputación sea conseguir “más visitantes”. “¿Se pretende recaudar más?”, ha preguntado. Abogan por que la Diputación promueva un “debate social” sobre el papel que deben desempeñar los museos. “¿Han hecho un diagnóstico del conocimiento social de los museos de Bizkaia?”. La diputada ha contestado que, en una próxima comparecencia, trasladarán a la Cámara vizcaína el balance anual de los centros culturales incluidos en la empresa pública Bizkaikoa, que tiene entre sus prioridades “cuidar del patrimonio, ponerlo en valor y difundirlo”, ha recordado.

#### SMITHSONIAN FOLKLIFE FESTIVAL

Atendiendo a otra petición de comparecencia de los populares, Lorea Bilbao se ha referido a la presencia vizcaína en el próximo Smithsonian Folklife Festival que se celebrará en Washington. La diputada no ha podido adelantar muchos detalles, ya que durante los próximos meses se debe seguir trabajando en la elaboración del programa definitivo. “Se está hilvanando”, ha dicho.

Preguntada por los “600.000 euros” que la Diputación ha presupuestado para esta “feria de diálogo” entre culturas, la diputada ha apuntado que la invitación de la organización a la cultura vasca es “un reto y una oportunidad, más que un riesgo” para mostrar al mundo “lo que somos” y para atraer al público norteamericano “a conocernos”.

Entre las acciones previstas que contempla la organización, Lorea Bilbao entiende que no deben faltar las creaciones de nuestros artesanos, el deporte autóctono, la gastronomía vasca, así como la presencia del euskera, la música, el baile o nuevas expresiones contemporáneas. La diputada ha incluido en esta oferta “la interacción con el visitante, charlas y conferencias”. Los “participantes” que acudan al festival desde Bizkaia “guardarán relación” con estos ámbitos de la cultura vasca y serán elegidos por la propia organización, si bien la Diputación se encargará de hacer una preselección. “Ellos elegirán en función de sus intereses”, ha señalado.

Bilbao ha indicado que la organización ha cursado ya varias visitas a Euskadi –la próxima será “en abril”- y se reúne “una vez a la semana” vía internet con representantes de la Diputación. La diputada ha señalado que en el festival, al que se espera acudan “entre 1 y 5 millones de visitantes”, habrá presencia del euskera a través de la puesta en marcha de un “euskaltegi”, y de un espacio para el “bertsolarismo”, “la literatura vasca” y “los medios de comunicación en esta lengua”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## IMAGEN MODERNA Y MARCA ESPAÑA

El PP ha pedido a la Diputación que incida en aspectos “que tengan que ver con la modernidad” del país, ya que los norteamericanos “funcionan mucho con clichés”. Desde Podemos Bizkaia se ha solicitado que la delegación vasca se “aleje” de la marca España, ya que “asusta bastante lo que llega”, ha señalado Josean Elgezabal, quien ha pedido que se mantengan contactos con los “grupos culturales” de cara a que participen en el proceso de diseño. Por su parte, EH Bildu ha preguntado por el "retorno" de la “importante” inversión y por si alguna otra institución se ha unido a la Diputación vizcaína.

Bilbao ha contestado que trabajarán en Washington sobre la marca “Basque country” y que los organizadores han podido ya “corregir sus errores fruto de los prejuicios” gracias a las visitas que ha hecho la delegación norteamericana a nuestros pueblos, ciudades, centros tecnológicos o empresas innovadoras, así como a conocer nuestro servicio de salud pública o los distintos territorios en los que se habla euskera (Iparralde, Nafarroa y los territorios de la CAV).